

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Diputatu nagusiaren 135/2019 Foru Dekretua, martxoaren 27koa, Turismoaren sektorean inbertsioak egiteko laguntzen deialdia onartzen duena

Arabako Lurralde Historikoa oso leku berezian dago, historian zehar bideen eta bidaiarien elkargunea izan baita. Horrek eragin nabarmena izan du gure lurraldeko turismo sektorearen sorreran eta garapenean.

Turismoa geroz eta garrantzi handiagoa duen sektorea da. Gaitasun handia du aberastasuna eta lanpostuak sortzeko, garrantzi eta eragin ekonomikoa handitzen jarraitzeko, eta gero eta indar handiagoa du Arabako ekonomian. Hain zuzen ere, Arabako turismo sektorea, gaur egungo atzeraldi ekonomikoa eta familien eta gainerako eragile ekonomikoen gastu murrizketa latza gorabehera, sektorerik dinamikoenetakoa da, eta azken urteotan izandako bisitari kopuruak eta horiek Araban emandako gauen kopuruak itxaropentsuak dira.

Arabako Lurralde Historikoak sektore hori garatzeko baliabide asko eta askotarikoak dauzka: baliabide naturalak, artistikoak, kulturalak, ondarekoak, gastronomikoak, paisaiaren ingurukoak, eta horiek guztiek berezko nortasuna ematen diote. Gainera, lurralde irekia da, koloreanitza, modernoa eta abegitsua.

Arabako Foru Aldundiak agintaldirako diseinatu duen turismoko plan estrategikoak helburu nagusi hauek dauzka: turista kopurua handitzea eta haien batez besteko egonaldia luzatzea, eta arabarren turismoa sustatzea Arabako Lurralde Historikoan.

Horrez gain, Arabako Foru Aldundiak uste du gure lurraldeko turismoaren garapenari egiten dion ekarpena izan behar dela elkarlanean jardutea Araban eta Euskal Autonomia Erkidegoan ari diren gainerako erakundeekin eta eragile ekonomikoekin. Dena dela, erakunde lankidetzaz ez litzateke nahikoa izango Arabako turismo sektoreari indar handia emateko, baldin eta Arabako udalek, herriek edota kuadrillek eta elkarteek produktuak garatuko ez balituzte eta gure ondarea, kultura eta ingurumena ezagutarazteko eta babesteko jarduketak egingo ez balituzte.

Orain arte bezala, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren lehentasuneko helburuak dira Arabako helmuga turistikoaren kalitatea hobetzea eta produktu turistiko berriak sortzea. Horretarako, bere eskumenak baliatzen ditu erakunde publikoentzako eta entitate pribatuentzako laguntza lerroak ezartzeko eta horiei dirulaguntzak emateko, hau da, turismoa garatzeko, sustatzeko eta bultzatzeko programetan finkatutako ekintzak gauzatzeko neurriak abiarazteko, eta hori guztia publikotasunaren, lehiaren eta objektibotasunaren printzipioak aplikatuz egiten du.

Lurraldeko erakargune nagusien inguruan turismoko azpiegiturak ezartzea eta hornitzea ekimen interesgarria da turistak erakartzeko. Turismorako azpiegitura horien bidez lortu nahi da turismo eskaintza gaika espezializatzea, oinarritzat hartuta gure lurraldeko kultura eta natura baliabide ugariak. Arabako Foru Aldundiak toki erakundearen turismoaren arloko azpiegiturak eta ekipamenduak sortzeko edo hobetzeko ematen dituen laguntzak eta pizgarriak eskainiko diren produktu turistikoaren desberdintasuna aintzat hartuz sustatu behar dira. Bestalde, helmuga turistiko garrantzitsuetarako inbertsioen xedea izan behar da turistek ezagutaraztea Arabaren berezitasuna, tradizioa eta historia.

Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiak onespina eman zien Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren esku-menen eremuan norgehiagokaren araubidean ematen diren dirulaguntzen oinarri arautzaileei; araudi horrek arautzen ditu Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzak lehia araubidean ematen dituen dirulaguntzak. Araudia martxoaren 28ko 19/2017 Foru Dekretuaren bidez aldatu da.

Oinarri horien onestearen ondorioz, eta ahalik eta gehien zabaltzearen eta publikotasunaren, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzeko, 2019ko ekitaldian turismoaren sektorean inbertsioak egiteko laguntzen deialdia egin behar da.

Nahitaezko txostenak aztertu dira.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea 2019ko ekitaldian turismoaren sektorean inbertsioak egiteko laguntzen deialdi publikoa.

Bigarrena. Deialdia honako hauek arautzen dute: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak norgehiagoka araubidean dirulaguntzak emateko aplikatzen diren oinarri orokor arautzaileek (Diputatuen Kontseiluaren 26/2016 Foru Dekretua, martxoaren 15ekoa, ALHAO, 36. zenbakia, 2016ko martxoaren 30ean argitaratua), haren ondorengo aldaketak (19/2017 Foru Dekretua, martxoaren 28koa) eta foru dekretu honen eranskinean xedatzen denak.

Hirugarrena. Foru dekretu honek arautzen dituen dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2018rako onartutako eta 2019rako luzatutako aurrekontuko partida hauen kontura ordainduko dira:

– Partida: 1.30.5.02.37.00.765.00.01; zenbatekoa: 55.000,00 euro; xedapen erreferentzia: 105.1207/000; onuradunak: kuadrillak.

– Partida: 1.30.5.02.37.00.762.90.01; zenbatekoa: 50.000,00 euro; xedapen erreferentzia: 105.1208/000; onuraduna: udalak.

Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 6ko 26/2016 Foru Dekretuaren bidez onartutako oinarri orokorren 7.2 artikulua betetzeko, saileko diputatu titularrari ahalmena ematen zaio aurrekontuko partida bakoitzari esleitutako funtsak ebazpen bidez birbanatzeko, Balorazio Batzordearen proposamena aintzat hartu ondoren eta deialdiaren gutzirako aurrekontua ezinbestean erresetatuta.

Deialdi honetarako zehaztutako aurrekontu partiden hasierako hornidura hasierako aurrekontuaren ehuneko 100 handitu ahalgo da, gehienez, aurrekontu transferentzia egokien bitartez, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan gerakinik badago.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, baina aukerako berraztertze errekurtsua jar daiteke diputatu nagusiaren aurrean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita hilabete igaro baino lehen, administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera. Bestela, zuzenean aurkatu daiteke administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren aurrean, egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita bi hilabete igaro baino lehen.

Bosgarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da eta argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoaren 27a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria

JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES

ANEXO

2019KO EKITALDIANTURISMOAREN SEKTOREAN INBERTSIOAK EGITEKO LAGUNTZEN DEIALDIA

1. artikulua. Xedea

Deialdi honen xedea da 2019ko ekitaldian turismoaren sektorean inbertsioak egiteko laguntzak ematea.

2. artikulua. Aurrekontu partidak eta gehieneko zenbateko osoa

2.1. Ebazpen honen bidez araututako dirulaguntzak aurrekontu partida hauen kontura ordainduko dira:

— Partida: 1.30.5.02.37.00.765.00.01; zenbatekoa: 55.000,00 euro; xedapen erreferentzia: 105.1207/000; onuradunak: kuadrillak.

— Partida: 1.30.5.02.37.00.762.90.01; zenbatekoa: 50.000,00 euro; xedapen erreferentzia: 105.1208/000; onuraduna: udalak.

2.2. Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 6ko 26/2016 Foru Dekretuaren bidez onartutako oinarri orokorren 7.2 artikulua betetzeko, saileko diputatu titularrari ahalmena ematen zaio aurrekontuko partida bakoitzari esleitutako funtsak ebazpen bidez birbanatzeko, Balorazio Batzordearen proposamena aintzat hartu ondoren eta deialdiaren guztirako aurrekontua ezinbestean errespetatuta.

2.3. Deialdi honetarako zehaztutako aurrekontu partiden hasierako hornidura hasierako aurrekontuaren ehuneko 100 handitu ahalko da, gehienez, aurrekontu transferentzia egokien bitartez, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan gerakinik badago.

3. artikulua. Erakunde onuradunak

3.1. Laguntza lerro honetan jasotzen diren onurak eskura ditzakete:

a) Arabako Lurralde Historikoko kuadrillek.

b) Arabako Lurralde Historikoko udalek.

3.2. Kide bihurtzeko prozesuan edo funtzionamenduan sexu diskriminazioa eragiten duten entitateak ezingo dira izan dirulaguntza hauen onuradun, hala xedatzen baitu Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legearen 24.2 artikulua (otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea).

Halaber, ezin izango dute deialdi honetan parte hartu sexu bereizkeriagatik zehapen administratiboa edo penala jasan duten pertsona fisikoek ez juridikoek, harik eta zehapenean ezarritako epealdia amaitu arte, ez eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Legea aplikatuz honelako deialdietan parte hartzeko debekua zehapen gisa ezarri zaien ere, 1/1997 Legegintza Dekretuak 50.5 artikuluan jasotzen duen bezala (1/1997 Legegintza Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen testu bategina onesten duena, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak azken xedapenetatik seigarrenean aldatu zuena).

4. artikulua. Diruz lagun daitezkeen gastuak

4.1. Proiektuak abian jartzeko inolako zalantzarik gabe lagungarriak diren gastuak, beharrezkoak direnak eta ezarritako epean egiten direnak lagundu ahalko dira diruz.

Dekretu honetan arautzen diren dirulaguntzak kontzeptu hauetarako eska daitezke:

A. Turismoaren arloko irisgarritasuna hobetzeko inbertsioak; honen barruan sartzen dira dibertsitate funtzionala (fisikoa, ikusmenekoa, entzumekoa, adimenekoa edo organikoa) duten pertsonak beren kabuz Arabako turismo baliabideetan ibiltzeko behar diren hobekuntzak egiteko inbertsioak. Esate baterako, honako hobekuntza hauek:

1. Honako hauek hobetzeko obrak: sarbideak, desplazamendu horizontalak edota bertikalak, komunak, ateak eta pasabideak, bai eta oztopo arkitektonikoak ezabatzeko egiten direnak ere.

2. Ikusmena, entzumena edo ukimena erabiliz orientatzeko panelak edota euskarriak.

3. Zerbitzuei buruzko argibideak braillez edota ikusmen eragozpenak dituztenek irakurtzeko egokituak.

4. Web teknologiak, argibideak era autonomoan eskuratzeko aukera ematen dietenak desgaitasunen bat duten pertsona guztiei.

5. Honako hauek erostea: Joëlette aulkiak, pertsona itsuak eta ikusmen urrikoak baliabide naturaletan barna ibiltzeko ezinbestekoak diren gailuak, bai eta mugitzeko gaitasuna urrituta duten pertsonak baliabide naturaletan ibiltzeko baino erabiliko ez diren ibilgailu elektrikoak ere.

B. Eskatzailearen baliabide turistikoetako sarbideak apaintzeko lanak, honako hauek, besteak beste:

1. Paisaia lehengoratzeko eta zaintzeko lanak (ezinbestekoa da zuzenean lotuta egotea interes turistiko handiko baliabide batekin).

2. Baliabide turistikoetan argi apaingarriak jartzea: argien lehenengo instalazioa, argi instalazioa hobetzea, argi gehiago ipintzea eta argiak ordeztea. Ez dira onartuko dirulaguntzarako hiriko argietan egiten diren lanak, honako hauen estetika egokitzeko egiten direnak izan ezik: etxe historikoak eta interes kulturalerako ondasunak, babestu beharrekotzat jo direnak edo horretarako prozedura abian ezarrita dutenak.

3. Paisaia begiratokiak egitea eta zaharberritzea.

4. Bisitarien ibilgailuak aparkatzeko lekuak atontzea; aparkalekuak baliabidetik kanpo egon behar dira eta beren helburua ibilgailuen eragin kaltegarria arintzea izan behar da.

C. Donejakue Bideko eta Ignaziotar Bideko erromesei arreta egiteko azpiegiturak hobetzeko lanak, dagoeneko badaudenak konpontzeko, handitzeko edo eraberritzeko egiten direnak, hain zuzen, eta Ardoaren eta Arrainaren Ibilbidean (GR38), Vasco-Navarro trenbideko bide berdean eta Arabatik pasatzen diren ibilbide eta bideen inguruan zerbitzuak eta ekipamenduak ipintzeko egiten diren inbertsioen gastuak.

D. Elementu berezien balio turistikoa nabarmentzeko lanak; honako hauek izan daitezke:

1. Berrogeita hamar urtetik gorako ondasun higiezinak (Donejakue Bideko aterpetxeak ez beste guztiak), balio historikoa dutenak edo alde jakin bateko eraikien eredu tipikoa islatzen dutenak, birgaitzea edota zaharberritzea, barrutik zein kanpotik, pertsonen ostatu modura ez beste turismo xede batzuetarako erabiltzeko.

2. Interes etnografikoa, arkitektonikoa, kulturala, historikoa, erlijiosoa edo turistikoa duten elementuak (industria ondarekoak barne) zaharberritzea.

3. Historia eta arte ondareko baliabide turistikoak birgaitzeko eta zaharberritzeko obra txikiak; ez da beharrezkoa baliabidea eskatzailearen jabetzakoa izatea, baina bai herritar guztientzat zabalik egotea edota toki erakunde batek bisita turistikoak antolatzea.

E. Bisitariak hartzeko eraikinak edo informazio turistikoa emateko azpiegiturak (turismo bulegoak, turismo informazioguneak...) konpontzea, handitzea eta mantentzea edo eraberritzea. Kontzeptu honen barruan sartzen dira zentroetako barne ekipamenduak: altzariak, ekipo informatikoak eta ikus-entzunezko ekipoak.

F. Besteak beste, honako ondasun inbentariagarri hauek erostea:

1. Turistei alokatzeko bizikletak, bai eta umeak eramateko aulkiak ere.

2. Auto eta autobus elektrikoak.

3. Teleskopioak, bai behaketa astronomikorako, bai hegaztiak eta beste animalia batzuk behatzeko.

4.2. Dirulaguntzarako onartzen dira obrak eta lanak egiteko proiektu teknikoak idazten dituzten teknikarien ogibidesariek eta proiektu horiek gauzatzeko lanen zuzendaritza fakultatiboan ari direnen ogibidesariek eragiten dituzten gastuak, bai eta, oro har, obrak gauzatzeko egin behar diren azterlanen kostua ere, baldin eta obrak deialdiko 5. artikuluan ezartzen den aldiaren barruan esleitzen edota hasten badira.

4.3. Ez dute diru-laguntzarik jasoko hauek:

– Lanak egiteko behar diren lurrak edo higiezinak erosteak eragiten dituen gastuak.

– Funtzionamendurako gastu arruntak, onuradunenak.

– 4.1 artikuluko A apartatuko obren edota jarduketan kontzeptuak, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren ustez ez badute laguntzen behar den beste irisgarritasuna hobetzen.

– Erakunde eskatzailearen barruko langile gastuak.

– Finantza gastuak.

– Zergak diruz lagunduko dira, baldin eta onuradunak ordaindu ordaintzen baditu. BEZa eta gainerako zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu ahal badira, inolaz ere ez dira diruz lagunduko, eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere ez.

4.4. Dirulaguntza lerro honetako laguntzak ezin dira eman irabazteko asmoa daukaten entitateen baliabideetarako.

4.5. Dirulaguntzarako onartzen den aurrekontuaren ehuneko 100 azpikontratatzea baimentzen da; horretarako, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauak 27. artikuluan ezartzen dituen baldintzak bete beharko dira.

4.6. Ez da diruz lagunduko erostea eskatzailea ez den beste jabe batek lehenago erabilitako ekipoak eta/edo inbertsioak.

5. artikulua. Aplikazio eremua eta jarduerak gauzatzeko epealdia

5.1. Deialdi honetan onuradun direnek laguntza jasotzen duten jardueren emaitzak Arabako Lurralde Historikoan gauzatu beharko dituzte 2019ko urtarrilaren 1etik azaroaren 18ra arteko epealdian (biak barne).

6. artikulua. Inbertsio eskaera zer den eta gehienez eska daitezkeen inbertsioen kopurua

6.1. Azterlan edo hirigintza-merkataritza inbertsio mota bakoitza bereiz baloratuko da artikulua honetan zehazten diren irizpideak oinarri.

Araudi honen ondorioetarako, hirigintza-merkataritza inbertsio mota gisa ulertuko dira ez-augarri teknika komunak dauzkatenak, ekipo edo hornidura horren ale bat edo gehiago eskatu. Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak egokitzapen lanak egin ahalko ditu, entitate bakoitzak aurkeztutako ekipamendu eskaerak banatuz edo multzokatuz, horrela ezarritakora hobeto moldatzen dela ulertuz gero.

6.2. Erakunde eskatzaile bakoitzak inbertsio mota bakoitzeko gehienez eska dezakeen eskaera kopurua hau izango da:

- Kuadrillak: 4 inbertsio eskaera
- Udalak: 2 inbertsio eskaera

Erakunderen batek inbertsio eskaera gehiago aurkeztuz gero, baimendutako gehieneko kopuruaz gaindikoak ofizioz balio gabetuko dira eta ez dira aintzat hartuko. Inbertsioak hautatzeko, kontuan hartuko da eskaerak aurkeztean eskatzaileak adierazitako hurrenkera.

7. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak

7.1. Dirulaguntzarako onartzen diren aurrekontuei aplikatu beharreko dirulaguntza ehunekoa (ikusi Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretua, 7.4 oinarri orokorra) ehuneko 70 izango da.

Hala ere, kasu berezietan, Ignaziotar Bideko, Ardoaren eta Arrainaren Ibilbideko (GR38) eta Vasco-Navarro trenbideko bide berdeko produktu turistikoekin lotutako gastuetarako, ehuneko 80ko dirulaguntza eman ahal izango da, kontuan hartuta produktuen izaera eta garrantzia, eta aintzat hartuta produktuok bat datozela Basquetour-ek (Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren sozietate publikoak) bultzatzen eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak, berariaz eraturako hainbat mahai teknikoetan parte hartuz beste lurralde eta autonomia erkidego batzuekin eta ukitutako kuadrillekin lankidetzan eta koordinatuta arituz, bultzatzen dituen turismo sustapeneko helburu nagusiekin.

7.2. Nolanahi ere, ehuneko horren aplikazioaren emaitza 10.000,00 euroko dirulaguntza izan daiteke gehienez, kuadrillentzat, eta 8.000,00 euro udalentzat.

Era berean, eskatutako dirulaguntzaren zenbateko teorikoa handiagoa bada entitate eskatzaileari eman beharreko dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa baino, ofizioz balio gabetuko dira, balioetsi gabe, aipatutako dirulaguntzaren gehieneko zenbateko baimendua gainditzen duten eskaerak, eskatu diren hurrenkera kontuan hartuta, eta eskatutako azkena izango da balio gabetuko den lehena.

7.3. Hala ere, deialdia ebatzitakoan, partida bakoitzean ez badira 2.1 artikuluan jasotako aurrekontu kredituak agortu, sortutako gerakina erabili ahalko da ehuneko 90eraino gehitzeko onuradun bakoitzaren dirulaguntza portzentaia hainbanaketaz, baldin deialdian finkatutako mugak gainditzen ez badira.

7.4. Laguntza eskatzen duen erakundea Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzaren beste laguntza programa batzuetan laguntza baten onuraduna izan bada programa honen kontura onartutako proiektuen antzeko beste batzuetarako, diruz lagundu daitezkeen oinarria egokitu egingo da, arautegi honetan ezarritako gehieneko dirulaguntza ez gainditzeko.

7.5. Eskaerak dirulaguntza jaso ahal izan dezan, proposatutako dirulaguntzaren gutxieneko zenbateko hau ezartzen da, esleipena egiten den unerako: 500,00 euro.

8. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

8.1. Oinarri arautzaile orokorrak onetsi zituen Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuak hamahirugarren oinarrian ezartzen duena aplikatuko da. Gainera, jarduketek jaso ditzaketen gainerako laguntzak, edozein izanda ere laguntza mota eta hura ematen duen organoa edo administrazioa, bateragarriak izango dira erabaki honetako laguntzekin, baldin eta, bai osotara bai diruz lagundutako jarduera bakoitzean, laguntzen baturak ez badu gainditzen diruz lagundutako jardueraren kostua.

8.2. Dirulaguntza eskaera aurkeztu eta gero beste laguntzaren bat lortzen bada, ahalik eta lasterren horren berri eman beharko zaio, idatziz, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzari, zeinak eskatutako laguntza ukatzea proposa dezakeen.

8.3. Dirulaguntza eskatzen duen erakundeak aurretik beste bat jaso baldin badu helburu bererako, hala adierazi beharko du eskaeran.

9. artikulua. Prozedura bideratzeko eskumena duten organoak

9.1. Prozedura Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak bideratuko du.

9.2. Balorazio batzordea honela osatuta egongo da:

– Presidentea: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.

– Kideak: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko burua edo hark eskuordetzen duen pertsona.

– Idazkaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko teknikari bat.

10. artikulua. Eskaerak aurkezteko epealdia eta modua

10.1. Eskaerak Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira (Probintzia Plaza 5, 01001 Gasteiz), edo itundutako udalen erregistro orokorretan, eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuari zuzendu behar zaizkio (Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritza); edonola ere, urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa bete beharko da.

10.2. Eskaerak aurkezteko 30 egun naturaleko epea izango da, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

10.3. Foru dekretu honetan araututako laguntzetarako eskaerak egiteko erabili behar diren ereduak eskuragarri daude Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuan (Probintzia plaza 5, 01001 Gasteiz) eta Arabako Foru Aldundiaren webgunean. Behar bezala eta osorik beteta, sinatuta eta zigilatuta aurkeztu behar dira, eta agiri hauek erantsi behar zaizkie:

a) Egingo diren turismo sustapeneko jardueren azalpena eta jarduerok egiteko arrazoiak.

b) Eskatzen diren laguntzen xede diren inbertsio edo jardueri dagozkien eskaintzen fotokopiak. Aurkeztutako inbertsio/jarduera batek kontratu txikien muga gainditzen badu (40.000,00 euro obretarako eta 15.000,00 euro gainerakoetarako), ondasuna sartu baino lehen eskatutako 3 eskaintzen fotokopiak erantsi beharko dira, eta zer eskaintza hautatu den eta zergatik azaldu beharko da.

11. artikulua. Proiektuak hautatzeko eta baloratzeko irizpideak

11.1 Hirugarren batek aurkeztzen duen inbertsio mota bakoitza baloratzeko printzipio hauek aplikatuko dira: objektibotasuna, berdintasuna eta bereizkeriarik eza. Gainera, honako irizpide eta puntuazio hauek hartuko dira kontuan:

a) Dirulaguntza aplikatuko den jarduketaren xedea izatea dibertsitate funtzionala (fisikoa, ikusmenekoa, entzumekoa, adimenekoa edo organikoa) duten pertsonak turismo baliabideetan ibili ahal izateko hobekuntzak egitea (20 puntu gehienez).

b) Aurkeztutako eskaeraren definizio eta kalitate maila eta edukia, eta hura aztertzeko beharrezkoak diren agiri guztiak hasieratik bertatik aurkeztu izana (20 puntu gehienez).

Aurkeztutako eskaera erabat osatuta dago, eta proiektuaren zehaztasun eta definizio maila handia da	20 puntu
Aurkeztutako eskaera erabat osatuta dago, eta proiektuaren zehaztasun eta definizio maila ertaina da	15 puntu
Aurkeztutako eskaera ez dago erabat osatuta, baina geroago osatu da, eta proiektuaren zehaztasun eta definizio maila handia edo ertaina da.	10 puntu
Aurkeztutako gainerako eskaerak	0 puntu

c) Jarduketaren integrazio maila (15 puntu gehienez).

Proiektua erakundearen arteko lankidetzan eta koordinazioan oinarritzen da edo horren emaitza da	15 puntu
Gainerako proiektuak	5 puntu

d) Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eta Eusko Jaurlaritzaren baliabide turistiko estrategikoetan eskatzaileak egindako jarduketak (15 puntu gehienez).

1.a Europa Nostra saria duten baliabideen ingurukoak (5 puntu).

2.a Interes kulturalerako ondasuntzat (kategoria: multzo historikoa, multzo etnologikoa edo gune historikoa) jotako baliabideen ingurukoak (10 puntu).

3.a UNESCOk gizateriaren ondare jotako monumentuen ingurukoak (10 puntu).

3.a Babestutako natura eremuen edo baliabide naturalak antolatzeke plana onetsita duten eremuen ingurukoak (10 puntu).

5.a Nazioartean Garrantzia duen Ramsar hezegunetzat jo edota Natura Sarea 2000n sartutako edo babestutako biotopo bateko eremuen ingurukoak (10 puntu).

6.a Starlight izar parkeen edo monumentu historiko edota monumentu multzo historiko artistikotzat jotako ondasunen ingurukoak (5 puntu).

7.a Lurraldeko ibilbide turistiko garrantzitsuenen ingurukoak (15 puntu). Hauek dira Arabako ibilbide turistiko garrantzitsuak:

- Done Jakue bidea
- Ignaziotar Bidea
- Vasco-Navarro trenbideko bide berdea
- Ardoaren eta Arrainaren Ibilbidea (GR-38)

e) Jarduketaren ekarpena sasoiz kanpoko turismo okupaziorako eta turismo eskaintza dibertsifikatzeko (10 puntu gehienez).

Aurkeztutako jarduketak ez dauka loturarik eskatzailearen egungo eskaintza turistikoarekin: 5 puntu.	5 puntu
Aurkeztutako jarduketari esker eskatzailearen eskaintza turistikoa luzatzen da.	5 puntu

f) Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz jarduketan turismoaren arloko iraunkortasunerako irizpideak aplikatzen dira (10 puntu gehienez).

g) Jarduketaren lurralde kokapena (10 puntu gehienez).

5.000 biztanletik gorako udalerrria	10 puntu
5.000 biztanle edo gutxiagoko udalerrria	5 puntu

Irizpide hau baloratzeko Estatistika Institutu Nazionalak egindako udal errolda hartuko da aintzat, 2017ko urtarrilaren 1eko datuak, hain zuzen ere.

11.2 Erakunde onuradunak zehazteko eta hautatzeko, eta bakoitzari emango zaion zenbatekoa zehazteko, Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuak 6. artikuluan xedatzen duena aplikatuko da.

11.3. Baldin eta eskaerako inbertsio edota jarduketa batzuek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Sailaren ustez ez badute behar beste laguntzen dirulaguntza hauen xedeak lortzen, partida horiek kanpoan utzi ahal izango dira esleitu beharreko dirulaguntza kalkulatzeko orduan. Era berean, erakunde onuradunak dirulaguntzarako onartuko den gehieneko aurrekontua (6. artikulua) agortzen badu, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak dirulaguntzarako onartuko diren gastu kontzeptuak zehaztu ahal izango ditu.

12. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

12.1. Organo eskudunak, Balioespen Batzordearen proposamenez, bidezko deritzon ebazpena emango du. Ebazpena emateko epealdia Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuak 6. artikuluan ezartzen duenaren arabera finkatuko da.

12.2. Ebazpenak gutun ziurtatu bidez jakinaraziko dira. Edonola ere, Administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritakoari jarraituz jardungo da.

12.3 Ebazpenak administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka, administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan dioenarekin bat etorritik, aurrerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Foruko Gobernu Kontseiluari, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkatu daiteke administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren aurrean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

13. artikulua. Dirulaguntza justifikatzea eta ordaintzea

13.1. Dirulaguntzen likidazioa kasuan kasuko administrazio ebazpenean adierazten den bezala egingo da, bertan zehazten diren betekizun eta baldintza guztiak bete ondoren.

13.2. Arabako Foru Aldundiak dirulaguntza ordaindu beharra onartzeko, onuradunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu 2019ko azaroaren 18a baino lehen, egun hori barne:

– Egindako jarduketan/inbertsioen memoria. Obrak eginez gero, obren argazkia ere aurkeztu behar da memoriarekin batera.

– Justifikazio fakturen zerrenda, honako datu hauek zehaztuta: hartzekoduna, zenbatekoa, noiz egin den eta, behar denean, noiz ordaindu den.

– Jatorrizko faktura eta gainerako frogagiri baliokideak edo fotokopia konpultsatuak; konpultsa gisa onartuko da aurkeztutako fakturak benetakoak direla adierazten duen udalburuaren, alkatearen edo idazkari-kontuhartzailearen sinadura eta zigilua dituen egiaztagiri dataduna. Egiaztagiri horrek faktura guztien zerrenda zehatza jasoko du.

– Deialdi honetako 4.2 artikuluan ezartzen denaren ondorioetarako behar izanez gero, udalburuaren, alkatearen edo idazkari-kontuhartzailearen sinadura eta zigilua dituen ziurtagiria, adierazten duena jarduketak deialdiko 5. artikuluan ezartzen den epealdiaren barruan esleitu edota hasi direla.

Baldin eta gastuak kontratu txikien zenbatekora (40.000,00 euro obretan edo 15.000,00 euro gainerako kontratuetan) heltzen badira eta kopuru horiez gaindikoak badira, hautapenaren justifikazioarekin batera, hautatutako eskaintza ez bada ekonomiaren aldetik onuragarriena, hiru eskaintza aurkeztu beharko dira, eta justifikazio txostena ere bai, non eta ez den aurkeztu eskaera egiterakoan, eta gerora gastu erreala kontratu txiki gisa ezarritakoaren beste edo hori baino gehiago bada.

Nolanahi ere, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak aukera izango du beste dokumentu batzuk ere eskatzeko, egoki baderitzo memorian aipatzen dena egiaztatzeko.

13.3. Onuradunak aurkeztutako fakturen ordainagiriak (banku transferentziak edo laburpenak, bankuaren zigorria ezarrita, edo fakturen ordainketaren ziurtagiria, udalburuaren, alkatearen edo idazkari-kontuhartzailearen sinadura eta zigorria dituen eta fakturen zenbakiak, zenbatekoak eta ordainketa egunak zehazten dituen) aurkeztutakoan ordainduko da diru-laguntza. Ordainagiriok aurkezteko epea 2020ko apirilaren 8an amaituko da.

13.4. 7. artikuluan ezartzen diren dirulaguntza mugetako bat aplikatzen bada, onargarria izango da, Enplegu, Merkataritza eta Turismoaren Sustapenaren Zerbitzuak txostena egin ondoren, dirulaguntzarako onartzen den gastua murriztea, esleitutako dirulaguntza aldatu gabe; alabaina, horretarako, beharrezkoa izango da dirulaguntzaren xedea betetzea eta murrizketa bat etortzea justifikatu beharreko dirulaguntzarako onartutako gastuaren gutxienezko zenbatekoarekin. Zenbateko hori kalkulatzeko eragiketa hau egin behar da: emandako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa aplikatutako dirulaguntza ehunekoaz zatitu).

13.5. Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2019rako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabalioa atzerriko dirutan).

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

13.6. Aurreko paragrafoetan aipatutako agiriak, dirulaguntza ordaintzeko betebeharra onartzeko aurkeztu behar direnak zein hura kobratzeko aurkeztu behar direnak, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztu ahalko dira (Probintzia plaza 5, 01001 Gasteiz) edo bestela, itundutako udalen erregistro orokorretan. Dena dela, bete egin beharko da administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa.

14. artikulua. Garapena

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru ebazpen hau zuzen garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezko den xedapen oro onartzeko.

15. artikulua. Eskaerak egokitzea

15.1. Erabaki honetan araututako dirulaguntza deialdian parte hartzerik ez duten hirugarren pertsonen jarduketak – dela erabaki honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez dutelako, diruz laguntzea nahi den kontzeptuak diruz lagundu ezin direlako edo Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz proiektu horiek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak aurreko kudeatutako beste laguntza lerro batzuei hobeto egokitzen zaizkielako eta horrelakoren bat eskuratu ahal dutelako– dagokien laguntza lerrera eraman ahalko dira ofizioz.

16. artikulua. Azken klausula

Foru dekretu honetan arautzen den prozedura lotuta dago Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren bidez onartuta oinarri arautzaile orokorreari eta horien aldaketari (19/2017 Foru Dekretua, martxoaren 28koa), eta honako hauek dirulaguntzei buruz xedatzen dutenari: urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntza eta transferentziena; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren araudia onartzen duena, eta dirulaguntzei buruzko geroko xedapen guztiak.